

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



**ERASO MATXISTEN AURKAKO KANPAINA DONOSTIAN 2022**

## **“FESTETAN ERE ASKE! INDARKERIA SEXISTARIK EZ!!! JAI ASKEEN ALDE! INDARKERIA SEXISTARIK EZ!!**

Bi urteko pandemiaren ondoren, badatoz berriz ere festak, eta Donostiako Udalak, Berdintasun Bulegoaren bitartez, **eraso matxistak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko kanpaina** bat antolatu du, jaietan halako erasoak areagotu egiten direla eta.

Berdintasuneko zinegotzi Ane Oyarbidek adierazi duenez, “jaiak hasi dira jada, bai gure inguruan, bai estatuko beste leku batzuetan, eta, zoritxarrez, emakumea xede duten erasoek gora egin duela ikusten ari gara. Onartezina da gure gizartean oraindik ere bakar batzuek pentsatzea baimena dutela emakumeei jazartzeko eta erasotzeko eta emakumeen kontra indarkeria erabiltzeko, horretarako aitzakia bakar nagusitasuna, matxismoa dutela. Argi utzi behar dugu inor ez dela inor baino gehiago, eta askatasuna beste ezeren gaitetik dagoela. Eta, jakina, emakume **batek EZETZ esaten badu, EZEZKO** biribila da, ñabardurarik gabe”.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

Oyarbidek gogorarazi duenez, Ertzaintzak 2022ko lehen hiruhilekoari buruz emandako datuei erreparatuz, "Gipuzkoan hirukoiztu egin dira eraso matxisten delituak, 2021eko datuekin alderatuta, pandemiak eragin zituen murrizketak kendu izanaren ondorioz, baina baita erasoaren kulturaren normalizazio gaizki deituaren ondorioz ere; gainera, kultura hori biderkatu egiten da jaietan.

Indarkeria matxista emakumeen eta gizonen arteko berdintasun faltaren ondorio larrienetako bat da, eta, aukera-berdintasunaren arlo formalean aurrera egin bada ere, oraindik ere, indarkeria matxista oro har, jazarpen sexista eta sexu-erasoak botere-desberdintasun horien adierazpen bortitzak dira.

Sexu-bortxaketaren kultura gure gizartean oinarrituta dago oraindik, eta agerikoago egiten da hori jai-inguruneetan.

Jaietan, bereziki, sexu-erasoen kasu gehiago salatzen, ikusarazten eta jakitera ematen dira. Aurten, prebentzio-kanpaina San Joan jaiekin hasiko da, asteburu honetan bertan, eta Eguberriak arte luzatuko da. Aste Nagusian eta Euskal Jaietan, indartu egingo da kanpaina.



**“FESTETAN ERE  
ASKE!  
INDARKERIA  
SEXISTARIK EZ!!!**

**“¡POR UNAS  
FIESTAS EN  
LIBERTAD!  
¡¡¡NO A LA  
VIOLENCIA  
SEXISTA!”**

Oyarbidek adierazi duenez, Udalak "donostiarrak indarkeriaren aurkako borrokan sentibilizatzeko borondatea du. Indarkeria matxista desberdintasunaren ondoriozko gizarte-arazo bat da, eta, horregatik, erantzunak ere soziala izan behar du. Guztioi dagokigu errespetuzko, berdintasunezko eta indarkeriarik gabeko jarrerak sustatzea”.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

Hauek dira kanpainan aurreikusitako jardueretako batzuk:

- **Pankarta bat jarriko da udaletxean, Aste Nagusian.**
- Aste honetan zehar, **etxez etxe banatuko dira hala jarduketa-protokoloa** nola hirian dauden zerbitzu publikoen laburpena (89.000 ale). Asmoa da esku-hartzea erraztea, indarkeria matxistarik, erasorik edo bortxaketa-saiorik bada ere. Etxetik ere ikus edo entzun ditzakegu eraso-egoerak, eta, askotan, ez dakigu zer egin halakoetan, beldurra ematen digu, geldirik geratzen gara... Liburuxka honen bidez, herritarrei informazioa eman nahi diegu, nola jokatu jakin dezaten.
- **10.000 liburuxka espezializatu** banatuko dira, neskentzat (5.000 ale) eta mutilentzat (beste 5.000 ale). Liburuxka horietan, erasoak eta tratu txarretan oinarritutako harremanak saihesteko gomendioak ematen dira, eta dei egiten zaie eraso matxisten aurka jarrera aktiboa izan dezaten, haiek eraso sotilenak geldiarazten lagundu dezakete eta. Liburuxkekin batera, berdintasunaren, autodefentsaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren arloko hezitzaile espezialistek txapak, eskumuturrekoak eta bestelako materialak emango dituzte. Informazioak eta sentsibilizazioak zuzenekoak izan behar du gazteekin, eta indarkeria sexista desagerrarazteko lehen urratsa jarrera horiek identifikatzea da. Helburua da errespetuan eta askatasunean oinarritutako berdintasunezko harremanak eraikitzen laguntzea.

Material hori honela banatuko da:

- x San Joan bezperan, ekainak 23, informazio-puntua (atoi espezifikoa) Kursaal aldean egongo da, 18:30etik 22:30era, eta kaleko hezitzaileak, berriz, portu aldean eta hondartzetan ibiliko dira, 20:00etatik 24:00etara.
- x Karmengo jaietan, hilaren 12an eta 13an (gaur eta bihar), 20:00etatik 00:00etara, Kofradiaren parean. Grosen eta portuan, uztailaren 15ean eta 16an, 18:00etatik 22:00etara.
- x Groseko Zipotz jaietan, uztailaren 19an eta 20an, 20:00etatik 00:00etara, Txofreko aparkalekuaren ondoan.
- x Jazzaldian, uztailaren 21etik 24ra, 18:00etatik 21:00etara, Kursaal inguruan. Gainera, informazio-gune ibiltari bat egongo da Zurriola pasealekuan, 20:00etatik 22:00etara.

Aste Nagusiari, Euskal Jaiei eta estropadei dagokienez, eguna gerturatzean emango dugu puntuen eta ordutegien berri.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



- Udalak elkarlanean jarraituko du ostalaritza-sektorearekin eta Saguesko txostenik, eta, aurreko urteetan bezala, indarkeria eta eraso matxisten aurrean jarduteko protokoloaren 1250 ale banatuko dira. Era berean, kanpainaren goiburua duten materialak eta 100.000 ezpainzapi inguru banatuko dira.
- **DBuseko** pantailetan arreta-telefonoen publizitatea jarriko da.
- **Sare sozialetan** ere egongo da kanpaina. Mezua zabaldu nahi dugu eta, horrela, mundu digitalera iritsi, gaur egun gazteak horren bidez sozializatzen baitira. **#festetanereaske** eta **#noesno** traola sortu da.